GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CIENCIA, INNOVACIÓN Y UNIVERSIDADES | CSIC Consejo Superior de Investigaciones Científicas

ZURE EKITALDIA
‘JASANGARRIAGOA’ EGITEKO 10 AHOLKU

[Spoiler: % 100 jasangarria den ekitaldi bakarra egiten ez dena da]

1. KARBONO-AZTARNA MINIMIZATU

Tokiko hizlariak lehenetsi eta parte-hartze birtuala erraztu. Sustatu trenez edo autobusez bidaiatzea, isuri gutxiko alternatiba gisa.



2. MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Ekitaldian zehar oinez, bizikletaz edo garraio publikoan mugitzea bultzatu.



3. CATERING JASANGARRI ETA OSASUNGARRIA

Eskaini elikagai freskoak, arinak eta garaikoak, tokiko hornitzaileak eta aukera osasungarriak lehenetsiz “hidratados” sen botellas de auga de plástico.



4. DIGITALIZAZIOA ETA ZERO PAPERA

Ordezkatu material inprimatuak irtenbide digitalekin; hala nola, app-ak, QR kodeak eta ziurtagiri elektronikoak.



5. HONDAKINEN KUDEAKETA ARDURATSUA

Hondakinak minimizatzeko, ezarri materialak bereizteko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko sistemak.



6. ENERGIA BERRIZTAGARRI ETA ERAGINKORRA

Aukeratu energia berriztagarrien erabilera eta eraginkortasun energetikoko praktikak egiaztatzen dituzten egoitzak, ostatuak eta zerbitzuak.



7. HORNITZAILE EKOLOGIKOAK

Kontratatu tokiko hornitzaileak edo bidezko merkataritzakoak, eta saihestu plastikoa edo erabilera bakarreko materialak dituzten opariak.



8. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Diseinatu ekitaldi inklusibo bat, pertsona guztientzako irisgarritasun fisikoa zein digitala bermatuko duena.



9. EKONOMIA ZIRKULARRA

Saihestu beharrezkoa ez dena, aukeratu bizi-ziklo luzeko aukerak, berrerabili aurreko ekitaldietako emaitzak eta birziklatu material berriak.



10. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA, ETA KONPROMISOA

Komunikatu lortutako ingurumen-lorpenak eta karbono-aztarnaren murrizketan sortutako eragin positiboa.



*Hau CSICeko Kultura Zientifiko eta Herritarren Zientziaren Lehendakariordetzako Ekitaldi Globalen Lantaldearen proposamena da.